El habitat de esta cueva hay que relacionarlo con la existencia de la cueva superior que aunque tenga un difícil acceso puede estar comunicada con la inferior a través de una escala o escalera fija. Es más, en la cavidad superior se han encontrado fragmentos de cerámica común y de Terra sigillata, así como objetos metálicos.

La localización del yacimiento está en relación con la facilidad existente para que se produzca una comunicación con el mundo alavés por la proximidad geográfica, a la vez que por su situación estratégica. Esta ofrece una cierta seguridad frente a los problemas que se están desarrollando en la zona de influencia romana. Junto al lugar se ha detectado una surgencia de agua temporal con posibilidades de abastecimiento para una comunidad amplia. Es decir, existen unas condiciones favorables que permiten el asentamiento de gentes en este inaccesible territorio.

Por otra parte hay que constatar que en épocas anteriores, también se eligieron estas especiales condiciones por parte de las poblaciones protohistóricas, como se demuestra tras las excavaciones realizadas en Iruaxpe I y Urtao. Incluso bajo el nivel tardorromano del abrigo de Iruaxpe III y en el revuelto superficial de la cavidad superior, se han detectado estos que pueden considerarse pertenecientes al mundo protohistórico y que será necesario clarificar en una campaña posterior.

En definitiva, la excavación de Iruaxpe III ha significado la aportación de nuevos datos para los períodos más desconocidos de nuestra historia, sobre todo en relación a problemas de mentalidad religiosa, a la par que ha contribuido a ensanchar el campo de la actuación de la arqueología prehistórica.

ore-gama ezberdinekin, guztiak kultur une beranterromatar baten adierazgarri direnak zenbait erligiozko konotazio eta guzti, paleokristau bezala onartutako apaindura-motiboak aurkitu bait dira. Zeramika arrunteko zatiak ugariak dira, leunak nahiz orraziz dekoratuak. Fauna-hondakinak eta zereal-hondakinak ere aurkitu dira. Aurkikuntza guztiak agertu direneko maila bakarrak sute baten aztarnak erakusten ditu finkagunearen azalera osoan zehar. Finkagunea, barrunbea isten duten bi paretaz eta murrutetako bati paraleloak doazen zutoin-sostengu batzuz mugatua dago: sabaitza ahul bat eusteko izan zitezkeen agian, egitura hauek.


Haitzulo honetako bizigua goiko haitzuloaren esistentziarekin lotu beharra dago. Goiko haitzulo hau, nahiz eta sarbide zailekoa izan, behekoarekin eskailera edo zurubi finko baten bidez komunika daiteke. Are gehiago, goiko barrunbean zeramika arrunteko eta Terra Sigillata-ko zatiak aurkitu dira, hala nola objektu metalikoak.

Aztarnategiaren lokalizazioa mundu arabarrarekin Komunikazio bat sortzeko egon daitekeen erraztasunarekin lotua dago, bere posizio geografikoagatik eta aldi berean bere kokagune estrategikoagatik. Azken honek halako ziurtasun bat eskaintzen du erromatar eragina jasaten duen zonan ematen diren arazoan aurrean. Leku honen ondoan ur aldizkakoan irtete bat ikusi da, komunitate zabal bat hornitzeko adina ur ematen duena. Hau da, lurralde hain helezin honetan jendeak finkagune bat sortzeko baldintza egokiak suertatzen dira.

Bestalde esan beharra dago aurreko garaietan, baldintza berezi hauexek ere aukeratu zituztela populazio protohistorikoek, Iruazpe I eta Urtao-ko indusketak egin ondoren frogatu den bezala. Iruaxpe III-ko bebesgunearen maila beranterromatarraren azpitik ere eta goiko barrunbearen azaleko nahas-mahasean ere, mundu protohistorikoari dagozkion aztarnak aurkitu izan dira, ondorengo ekinaldi batean argitzea beharrezkoa izango delarik.

Azkenik, Iruaxpe III-ko indusketak gure historiaren arorik ez-ezagunen ezagutzarako datu berriak suposatuta, batez ere erligio-pentsamoldezko arazoei dagokieenez, historiaurreko arkeologiaren iharduera-eremua zabalitzen lagundu duelarik aldi berean.

Cueva de Iruaxpe. La cavidad inferior se corresponde con el abrigo excavado de Iruaxpe III.



IRUAXPEKO haitzuloa. Beheko zulogunea Iruaxpeko IIIaren industutako babespeari dagokio.

A.1.3. **VIZCAYA**

Trabajos de campo

Excavaciones

Las excavaciones arqueológicas en Vizcaya están subvencionadas por la Diputación Foral, con una excepción que lo ha sido por Caja Laboral Popular y Ayuntamiento de Elorrio. Las diez campañas sistemáticas ya programadas, así como las dos de urgencia han sido patrocinadas desde el Museo Arqueológico de Bilbao. Abarcan una amplia seriación cronológica y cultural que va desde el Paleolítico Superior hasta la Edad Moderna.


A.1.3. **BIZKAIA**

Landa-lanak

Indusketak

Bizkaian indusketa arkeologikoak Foru Aldundiaren diru-laguntza jasotzen dute, Lankide Aurrezkiaren eta Elorriko Udalaren Subentzioa duen salbuespen bakar bat izan ezik. Aurretik programaturiko hamar ekinaldi sistematikoak, hala nola premiazko biak Bilboko Arkeologi Museotik babestuak izan dira. Goi-Paleolitotik Aro Modernoraino doan seriazio kronologiko eta kultural zabal bat hartzen dute.

bizcaia - vizcaya



EXCAVACIONES INDUSKETAK

1. Kurtzia
2. Sta. Catalina
3. Iiso Betaio
4. Dólmen de la Cabaña 2
5. Cueva de Arenaza
6. Cueva de Lumentxa
7. Castro de Marueleza
8. Forua
9. Sn. Juan de Momoitio
10. Castro de Kosmoaga
11. Ermita de Kurtzio



KURTZIA. Perfil estratigráfico del camino.

KURTZIA. Bidearen ertz estratigrafikoa.

A.1.3.1.

Yacimiento de Kurtzia

(Barrica, Vizcaya)

I Campaña de excavaciones.

Dirigida por Margarita Muñoz.

Subvencionada por la Diputación Foral de Vizcaya.

La primera campaña de excavaciones en el yacimiento de Kurtzia se ha llevado a cabo entre los días 2 y 31 de Julio, participando en la misma universitarios estudiantes de Historia.

A.1.3.1.

Kurtzia-ko aztarnategia

(Barrika, Bizkaia)

I. Indusketa-ekinaldia.

Zuzendaria: Margarita Muñoz.

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia.

Kurtzia-ko aztarnategian lehen indusketa-ekinaldia Uztailero 2 eta 31. egunen artean burutu da, bertan Historiaseko ikasle unibertsitarien parte hartuz.

Los trabajos se han desarrollado en la ladera Norte del monte Curcio, en unos terrenos cruzados por un camino abierto por una máquina excavadora que ha proporcionado un valioso cantil para poder observar la estratigrafía y elegir el mejor sitio para realizar la excavación.

Se reavivó el cantil, lo que nos permitió comprobar que los estratos no eran uniformes. En unos lugares sólo hay un estrato finísimo y debajo de él arcillas amarillas y grisáceas mezcladas en ocasiones, estériles. En otros lugares hay dos estratos, de espesor variable y bajo ellos las mismas arcillas antes mencionadas.

Se eligió para realizar la excavación un lugar que tiene doble estrato a derecha e izquierda pero en el mismo sitio de nuestra excavación hay una gran bolsa de materiales líticos en una tierra arcillosa oscura, de distinta textura que la arcilla de base. Cuadrículamos un espacio de 5 por 2 mts., al que llamamos genéricamente A y damos los números 1 al 10, pares para la banda W. e impares para la E., orientando los cuadros al norte.

Comenzamos retirando una espesa capa de maleza, posteriormente levantamos una primera capa de tierra vegetal, como de unos 20 cms. de espesor, en la que había una gran acumulación de material de sílex, sobre todo núcleos y lascas no retocadas. Dejamos al descubierto unas grandes acumulaciones de piedras de sílex, que no se distribuyen de manera uniforme por todo el terreno, sino de forma inclinada, en dirección SE./NW., de la siguiente manera: esquina SW del cuadro A9; una franja muy amplia cogiendo gran parte del A10, A7, A8 y A5; y otra franja más estrecha en los cuadros A5 y A6.

Entre este material había gran riqueza de lascas retocadas, lascas no retocadas y núcleos. Se denominó lecho 1. En la campaña de este año se han excavado 4 lechos, siendo todos ellos muy regulares en cuanto a la composición del lecho y del material recogido.

El lecho 2 tiene una dispersión de material similar al anterior y siguen las acumulaciones de material. En la parte alta aparecen gran cantidad de piedras, sobre todo de sílex, y algunas areniscas de gran tamaño. Hay gran cantidad de piezas retocadas.

El lecho 3 es también una perduración de lo anterior. Desaparece la acumulación del A9 y empieza a verse un pequeño nivel de arcillas amarillas con menos cantidad de piedras de sílex.

En el lecho 4 empezamos a regularizar el trabajo efectuado, inclinando el lecho en dirección S/N, siguiendo la vertiente de la ladera y también un poco en dirección

Lanak Curcio mendiaren Ipar hegalean burutu dira, hondeatzeko makina batek irekitako bide batez ciurutzaturiko lur-sail batean. Horrela profil ballotsu bat agerian geratu da, estratigrafia ikusi ahal izateko eta indusketa burutzeko lekurik hoberena aukeratzeko oso aproposa.

Profila biziagotu zen, eta horrela geruzak ez zirela uniformeak ikusi ahal izan genuen. Zenbait lekutan geruza oso fin bat besterik ez dago eta honen azpian buztin hori eta gris-antzeko batzuk, nahasiak zenbaitetan, antzuak. Beste leku batzutan, ordea, bi geruza daude lodiera aldakorrekoak eta hauen azpian lehen aipatutako buztin berberak.

Indusketa burutzeko eskuinean eta ezkerrean geruza bikoitza duen toki bat aukeratu zen, baina gure indusketa egin zen leku berean harrizko materialez osatutako poltsada handi bat aurkitzen da, buztinezko lur ilun batean, azpiko buztinarekiko egitura ezberdina duena. 5 bider 2 metroko espazio bat laukizkotzen dugu, A izendapen orokorra ematen diogularik eta 1 etik "10erako zenbakiak banatzen ditugu, pareak Mendebalerako eta ez-pareak Ekialderako, laukiak iparrerantz orientatuz.

Hasieran sastrakazko geruza lodi bat kendu behar izan genuen, ondoren lehenengo lur begetalezko geruza bat altxa genuen, 20 bat zm-takoa lodieraz, suharrizko material pilaketa handi bat zuena, nukleoak batez ere, eta ikutugabeko printzak eta berean Suharri edo muger-harri pilaketa handi batzuk agerian utzi genituen, lurralde osoan era uniforme batean banatzen ez direnak, era okertu batean baizik, SE/NW norabidean, hain zuzen, modu hone-tantxe: A9 laukiaren SW ertza; zirrinda nahikoa zabal bat A10, A7, A8 eta A5 laukien zati handi bat hartuz; eta beste zirrinda estuago bat A5 eta A6 laukietan.

Material honen artean printza ukitudunak, ukitugabeko printzak eta nukleoak oso ugariak ziren. 1. azala deitu zitzaion. Aurtengo ekinaldian 4 azal industu dira, guztiak oso erregularrak izanik azalaren konposizioari eta jasotako materialari dagokionez.

2. azalak aurrekoaren antzekoa den material-sakabanatze bat dauka eta materialaren pilaketak ere badira. Goiko aldean harriak agertzen dira, kopuru handian, suharri-motakoak batez ere, eta zenbait hareharri tamaina handikoak. Ale ukitudunak ere kopuru handian ikus daitezke.

3. azala ere aurrekoaren jarraipen bat da. A9aren pilaketa desagertzen da eta buztin horien maila txiki bat ikusten hasten gara, suharriak kopuruz urriagoak izanik.

4. azalean, egindako lana erregulartzen hasten gara,

SW/NE, debido a la doble inclinación de la loma.

En los cuadros del sur encontramos lo mismo que antes, aunque ampliándose las zonas de arcilla amarilla en la banda de los impares.

Aunque lo excavado es demasiado poco como para poder sacar conclusiones, sí podemos avanzar que da la impresión de que esas acumulaciones de materiales son producto de corrimientos de piedras por la ladera, por arrastre de aguas o de arcillas. La zona de la excavación está situada en la mitad aproximada de la ladera por lo que es posible que no sean estratos bien asentados, sino corrimientos. Hay que destacar que no ha aparecido ni un solo resto de fauna, lo que podría ser indicativo para apoyar la teoría expuesta.

En cuanto a los materiales, hay gran abundancia de núcleos, lascas de decortinado, muchas de ellas retocadas, lascas, etc. Desde el punto de vista tipológico parece todo el conjunto muy regular: denticulados, escotaduras, lascas retocadas, raederas, algún raspador, algún buril...

Un grave accidente de circulación sufrido al final de las excavaciones precisamente cuando se trasladaba el material hizo que se dispersara éste y que una pequeña parte se perdiera, pero la mayor parte pudo ser recuperado aunque se hayan perdido algunas referencias.

A.1.3.2.

Santa Catalina

(Lekeitio, Vizcaya)

III Campaña de excavaciones.

Dirigida por Eduardo Berganza.

Subvencionada por la Diputación Foral de Vizcaya.

La presente campaña de excavaciones se desarrolló entre los días 2 y 27 de Julio, colaborando estudiantes de la Universidad de Deusto.

Los primeros días se dedicaron a la limpieza y desescombro de la zona de trabajo, con alteraciones antrópicas, pese a lo cual el área de excavación no se encontraba excesivamente. El método de trabajo fue el ya practicado en años anteriores.

azala hego/ipar norabidean okertuz, mendi-hegalaren isurkia jarraituz eta baita ere HM/IE norabidean apur bat, mendi-lepoak duen inklinazio bikoitzagatik.

Hegoaldeko laukietan lehengo gauza berak aurkitzen ditugu, ex-pareen zirindetan buztin horizko zonak handiagotzen diren arren.

Nahiz eta industutakoa oso gutxi izan oraindik ondo-riok atera ahal izateko, zera aurrera dezakegu, material-pilaketa horiek harrien lubiziagatik gertatzen direla mazelan zehar, uren edo buztinen marrazketagatik. Indusketa-eremua mazelaren erdialdera kokatua dago gutxi gora-behera, eta horregatik posible da geruza ongi finkatuak ez izatea, lubiziak baizik. Esan beharra dago ez dela fauna-hondakin bakar bat ere agertu, aipatutako teoria baieztatzera letorkeen adierazlea.

Materialei dagokionez, nukleo-ugaritasun handia dago, dekortikapen-printzak, horietako asko ukitudunak, printzak, etab. Ikuspegi tipologikotik multzo osoak nahikoa erregularra dirudi: horztunak, muxarradurak, printza ukitudunak, karraskailuak, marruskaren bat, zulakaitz bat edo beste...

Indusketan bukaera-aldera gertatutako zirkulazio-istripu larri batek, materiala lekuz aldatzen ari zenean hain zuzen, material honen sakabanatzea eta zati txiki baten galtzea ekarri zuen. Hala ere, zatirik handiena berriro ere bildu ahal izan zen, zenbait erreferentzia galdu badira ere.

A.1.3.2.

Santa Katalina

(Lekeitio, Bizkaia)

III. Indusketa-ekinaldia

Zuzendaria: Eduardo Berganza

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia

Indusketa-ekinaldi hau Uztailaren 2 eta 27. egunen artean burutu zen, Deustoko Unibertsitateko ikasleak bertan parte hartu zutelarik.

Lehen egunak lan-eremuaren garbiketa eta zabor-bilketan eman ziren, alterazio antropikoekin, nahiz eta hala ere indusketa-esparrua ez zen errez mugatzen. Laneko metodoa aurreko urteetan erabilitako berbera izan zen.



SANTA CATALINA. Fragmento de arpón plano.

SANTA KATALINA. Arrankazi lauaren zatia.

La estratigrafía del yacimiento sigue siendo muy uniforme en profundidad, aunque en extensión mantiene las diferencias ya detectadas en campañas anteriores. En líneas generales se puede decir que el exterior presenta unas coloraciones claras por efecto de la mezcla con arcilla procedente de la caída de agua desde la visera de la cueva. El resto del yacimiento presenta una tierra oscura, más arenosa, con piedras más redondeadas.

Una vez levantado el primer lecho apareció una lentilla de tierra amarilla, constituida por arcilla muy pura, de pocos cms. de espesor. Seguramente se trata de los depósitos acumulados por un encharcamiento. En el fondo de la hondonada, situada entre los cuadros C4 y B4 hemos detectado una gran acumulación de cenizas, más espesa aún que en lechos anteriores. Este hogar no presenta estructuras de preparación, únicamente hay en sus

Aztarnategiaren estratigrafiak oso uniformea izaten jarraitzen du sakonean, nahiz eta zabaleroan aurreko ekinaldietan atzemandako diferentziak mantentzen dituen. Zentzu orokorrean esan daiteke kanpoaldeak kolorazio argi batzuk erakusten dituela, kobazuloaren erlaitzetik, uraren erorketatik datorren buztinarekin nahasten delako. Aztarnategiak, gainontzekoan, lur iluna du, hareatsuagoa, harri biribilagoekin.

Behin lehen azala jaso ondoren lur horizko poltsada bat agertu zen, buztin oso puruz osatua, zm gutxitako lodiera duena. Istildura batek pilatutako jalkinak besterik ez dira seguraski. Sakonunearen hondoan, C4 eta B4 laukien artean errauts-pilaketa handi bat atzeman dugu, aurreko azaletan lortutakoak baino lodiagoak oraindik ere. Sutegi honek ez dauka prestakuntz egiturarik, bere inguruetan aztarnategiko batezbestekoa baino handiagoak di-

proximidades algunas piedras de tamaño mayor a la media del yacimiento, pero sin poder saber si su presencia es o no accidental.

En líneas generales, los cuatro lechos levantados son muy uniformes, salvo alteraciones de tipo local.

En cuanto a las evidencias halladas, en *industria tífica* siguen dominando los raspadores, buriles y piezas de borde abatido. Las puntas de dorso parecen presentar una gran variedad de tipos, desde las azilienses hasta las microgravettes. Hay también laminillas sierra con y sin borde abatido. Un número importante de núcleos y piezas no retocadas nos hablan de una actividad de talla en el propio yacimiento.

En *industria ósea* los hallazgos son más numerosos que en campañas anteriores. Destaca la presencia de un hueso grabado, de lectura difícil por hallarse estropeado, pero con decoración ordenada en grupos de rayas que lo separa del aziliense. También hay un fragmento de aguja con perforación, un resto de sección circular y un resto de cuerno con huellas de extracción de una varilla. Estos datos nos hacen pensar que nos encontramos en un momento del Magdaleniense Final o en la transición entre éste y el Aziliense.

En cuanto a los restos de *fauna*, la mayor parte sigue siendo marina, destacando el elevado número de conchas. En fauna terrestre destacan los restos de herbívoros y hay también muchos restos de aves.

En conclusión, podemos afirmar que nos encontramos en un momento de transición entre el final del Paleolítico y el Aziliense, como parecen indicarlo los restos industriales y la presencia de bígarras, propios de momentos fríos, aunque no se detecta el cambio en el relleno arqueológico.

ren zenbait harri besterik ez, baina hauen agerpena uste-gabekoa den ala ez ez daukagu jakiterik.

Orokorrean, jasotako lau azalak oso uniformeak dira, lekuan lekuko alterazio txiki batzuk izan ezik.

Aurkitutako zantzuei dagokienez, *harrizko industria* marruskak, zulakaitzak eta ertz zanpatudun piezak nagusi izaten jarraitzen dute. Bizkardun puntak mota-aldakortasun handia erakusten dute, hasi azildarretatik eta mikrogravetteetaraino. Badira baita ere zerra-ijelkitxoak, ertz zanpatudunak edo zanpatugabeak. Nukleo eta pieza ukitugabeen kopuru handi batek taila-lanketa baten berri ematen digu, aztarnategi beraren barruan.

Hezur-industria aurkikuntzak aurreko ekinaldieta-koak baino ugariagoak dira. Hezur grabatu baten presentzia nabarmentzen da, irakurketa zaila duena hondatua bait dago, bere dekorazioa azildarretik urruntzen duen marra-taldetan antolatutako dekorazioa izanik. Bada gainera zulodun jostorraz baten zatia, ebakidura zirkularreko aztarna bat eta mihiak lortzeko arrastoak dituen adar-zatia. Datu hauek begien aurrean ditugula azken Madeleineko une batean, edota honen eta Azildarraren arteko trantsizioan gaudela pentsatzeko tenorean aurkitzen gara.

Fauna-hondakinei dagokienez, gehienbat itsaso-koak izaten jarraitzen dute, maskorren kopuru handia izanik daturik aipagarriena. Lehorreko faunan belarjale-hondakinak gailentzen dira, eta hegartien hondakinak ere oso ugariak dira.

Bukatzeko, esan genezake Paleolito bukaeraren eta Azildarraren arteko trantsizio-une batean aurkitzen garela, lanketa-hondakinek eta karrakela edo magurio arrunten (*Littorina littorea*) presentziak -azken hauek une hotzetakoak izanik ere normalean- adierazten duten bezala, aldaketa betelan arkeologikoan atzematen ez den arren.

A.1.3.3.

Poblado de Ilso Betaio

(Ancertales, Sopusuerta)

IV Campaña de excavaciones.

Dirigida por J. Gorrochategui y M. J. Yarritu.

Subvencionada por la Diputación Foral de Vizcaya.

Introducción

El yacimiento se localiza en un vértice montañoso de la alineación de Alén-Betaio-Ventoso. Esta alineación separa los valles de los ríos Barbadún (Sopusuerta) y Agüera (Arcentales-Trucios) y encierra contra la costa al término municipal de Castro Urdiales (Cantabria). Se encuentra enclavado en una campa horizontal entre los montes Biroleo (782 m.) y Betaio (744 m.) a una altitud de 710 m.

El estudio del yacimiento se enmarca en un plan de investigación sobre el desarrollo cultural desde el Eneolítico al Bronce en Vizcaya aplicado en las estaciones pastoriles de Haitzko (Karrantza) y Alen (Trucios, Arcentales y Sopusuerta). Este programa tiene una doble finalidad: 1) la estructuración de una secuencia cultural; 2) la explicación del modelo económico-social de la época en su implantación, desarrollo y crisis. La realización de ambos objetivos se puede conseguir mediante la utilización de dos criterios: 1) geografía, que supone seguir el desarrollo histórico de grupos humanos en una o varias áreas restringidas de montaña y valle; 2) histórico, que debe tratar de integrar todas las manifestaciones culturales de la época, funerarias y de habitación. Al aplicar estos criterios en las alineaciones montañosas, sus estribaciones y los valles colindantes se parte de la hipótesis de que el área pastoril está ocupada por diferentes grupos tribales y de que existe una compartimentación de las zonas de pastos de tal forma que los monumentos funerarios corresponden a esas comunidades y se reúnen constituyendo auténticas necrópolis. De esta forma se ha elegido el asentamiento de Ilso Betaio en una zona donde convergen manifestaciones funerarias y de habitación, al aire libre y en cuevas.

La excavación: estructuras de habitación y utilillaje

En la presente campaña se ha ampliado la superficie a excavar del "fondo de cabaña 2". La estratigrafía proporcionada es la conocida en otras áreas del yacimiento: un paquete de tierra poco diferenciado entre la capa vegetal y la roca madre que alberga el material arqueológico.

A.1.3.3.

Ilso Betaio-ko hiriska

(Artzentales, Garape)

IV. Indusketa-ekinaldia

Zuzendariak: J. Gorrochategui eta M. J. Yarritu

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia

Sarrera

Alen-Betaio-Ventoso lerrokadaren mendi-erpin batean kokatzen da aztarnategia. Lerrokada honek Barbadun (Garape) eta Agüera (Artzentales-Turtzioz) ibaien haranak bereizten ditu eta Castro Urdiales (Cantabria) Udal-mugapea kostaren kontra biltzen du. Biroleo (782 m.) eta Betaio (744 m.) mendien artean kokatua dago landa horizontal batean, 710 m-tako altitudetan.

Aztarnategiaren ikerketa, Bizkaian Eneolitoan hasi eta Brontze-Aroa bitarteko garapen kulturalari buruzko ikerkuntz plan baten barnean sartzen da, Haitzko (Karrantza) eta Elen-go (Turtzioz, Artzentales eta Garape) artzanlekuetan aplikatua. Programa honek helburu bikoitza du: 1) sekuentzia kultural baten egituraketa; 2) garai-ko eredu ekonomiko-sozialaren argibidea bere ezarrera, garapen eta krisiari dagokionean. Helburu bien lorpena bi erizpide hauek erabiliz egin daiteke: 1) geografikoa, giza taldeen garapen historikoa jarraitzea suposatzen duena, mendi eta haraneko eremu mugatu bakar batean edo gehiagotan; 2) historikoa, garai horretako ezaugarri kultural guztiak biltzen saiatu behar duena, ehorzketei eta egoitzei dagozkienak, e.b. Erizpide hauek mendi-lerrokatetan, inguruetan eta alboko haranetan aplikatzerakoan, abiapuntuko hipotesia zera da, artzan-eremua talde tribal ezberdinez okupatua dagoela eta badela larreen zatikatzetxe bat; horrela, ehorzketek monumentuak komunitate horiei dagozkie eta benetako hilerriak eratuz elkartzeko dira. Modu honetan aukeratu da Ilso Betaio-ko finkagunea, ehorzketako eta egoitzako agerraldiak elkartzeko bait dauzka, aire-zabalean eta haitzuloetan.

Indusketa: egoitzako egiturak eta tresneria

Oraingo ekinaldian, "2. etxola-zoruan", industeko azalera handiagotu egin da. Lortutako estratigrafia aztarnategiko beste eskualde batzutatik jadanik ezagutzen zena bezalakoa da: material arkeologikoa gordetzen duen ama-harriaren eta landare-geruzaren artean gutxi ezberdinduriko lur-poltsada bat.

El fondo de cabaña está definido por: 1) la presencia de un lecho de piedras de arenisca de pequeño tamaño que aparecen justo debajo de la capa vegetal, en forma levemente tumular; 2) por una tierra cenicienta-negrucza con abundantísimas muestras de carbón vegetal que corresponde a dos posibles hogares y 3) por una zona interior de tierra semejante a la que aparece en el resto del asentamiento, de carácter natural.

Los materiales arqueológicos aparecen en función de la estructura de habitación. Apenas hacen acto de presencia en el conjunto del fondo 2, excepto varios cantos rodados, a veces pulidos y golpeados, relacionables con el calentamiento de líquidos, compresores y desechos de fabricación de hachas (con una función constructiva). El ajuar, exclusivamente de sílex, se presenta alrededor del fondo de cabaña. El conjunto aparecen herramientas desechadas (rotas por haber sido utilizadas), semielaboradas (no concluidas) y restos de talla (lascas y esquirlas). Escasean las lascas de tamaño grande y los núcleos lo que indicaría un gran interés en aprovechar al máximo la materia prima. El utillaje es bastante homogéneo aunque en superficie se han encontrado dos objetos únicos: un segmento de círculo y una foliácea de gran tamaño. El resto del material, como en el fondo 1, se compone de útiles domésticos (láminas y raspadores), defensivos (puntas foliáceas y de aletas y pedúnculo; dorsos) y secundariamente otros como buriles y truncaduras. Para una información complementaria véase J. GORROCHATEGUI (1977): Catálogo de talleres líticos del centro-oeste de Vizcaya y extremo oriental de Santander, Kobie 7, Bilbao y J. GORROCHATEGUI y M. J. YARRITU: Carta Arqueológica de Vizcaya. 2ª parte: materiales de superficie, Cuad. de Arq. de Deusto, Bilbao, 48-65 pp.

A.1.3.4.

Dolmen de La Cabana 2

(Karrantza)

I Campaña de excavaciones.

Dirigida por M. J. Yarritu y J. Gorrochategui.

Subvencionada por la Diputación Foral de Vizcaya.

Introducción

El dólmen forma parte de la necrópolis dolménica de La Cabaña, formada al menos por cuatro monumentos.

Etxola-zoruaren ezaugarriak hauek dira: 1) landaregeruzaren azpi-azpian agertzen den tamaina txikiko ha-reharriz osaturiko azal baten agerpena, tumulu-antzekoa; 2) landare-ikatzeko mostra oso-oso ugariak dituen lur hauskara-beltziska bat, bi sutegi posiblei dagokiena, eta 3) finkagunearen gainontzeko eremuetan agertzen denaren antzekoa den lurrez osatutako barne-zona bat, izaera naturalekoa.

Material arkeologikoak egoitz edo bizilekuaren egituraren arabera agertzen dira. 2. zoruaren osotasunean ia agertu ere ez dira egiten, zenbait harribil izan ezik, batzutan leunduak edo kolpatuak, likidoen berotzearekin erlaziona daitezkeenak, konprimagailuak edo aizkora-lanketaren hondakinak (eraikuntz funtzioa zutenak). Ostilamendua, suharriz osatua soilik, etxola-zoruaren inguruan azaltzen da. Orohar tresna baztertuak (erabiliak izateagatik hautsiak), erdilanduak (amaitugabeak) eta lanketa-hondakinak (printzak eta ezgardak) agertzen dira. Tamaina handiko printzak eta nukleoak urriak dira, eta honen lehengaia ahalik eta gehien aprobetxatzeko interes handia adierazten digu. Tresneria nahiko homoginoa da, azalera bi objektu besterik aurkitu ez diren arren: zirkulu-segmentu bat eta tamaina handiko hostakara bat. Materialaren enparatua, beste 1. zoru bezala, etxe-tresnaz (ijelkiak eta marruskak), defentsarako tresnaz (punta hostokarak, eta txorten eta hegaldunak; bizkarrak) eta maila apalagoan zulakaitz eta trunkadurak bezalako beste batzuz osatua dago. Informazio gehiago eduki nahiz gero, ikus J. GORROCHATEGUI (1977): Catalogo de talleres liticos del centro-oeste de Vizcaya y extremo oriental de Santander, Kobie 7, Bilbao eta J. GORROCHATEGUI y M. J. YARRITU: Carta Arqueologica de Vizcaya. 2ª parte: materiales de superficie, Cuad. de Arq. de Deusto, Bilbao, 48-65 pp.

A.1.3.4.

La Cabaña 2 - ko trikuharria

(Karrantza)

I. Indusketa-ekinaldia

Zuzendariak: M. J. Yarritu eta J. Gorrochategui

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia

Sarrera

Trikuharria gutxienik lau monumentuz osatua dagoen La Cabaña-ko hilerri dolmenikoaren parte da,



Poblado de ILSO BETAIO. Vista general del segundo fondo de cabaña.

ILSO BETAIO hiriska. Bordaren bigarren hondoaren bista orokorra.

Este conjunto funerario se localiza en una amplia loma redondeada al N. del monte Bernia (828 m.) en la estación pastoril más occidental de Vizcaya, la de Haitzko, que forma la pared W. de la cubeta de Karrantza.

Por su carácter específicamente funerario la excavación en dolmen de La Cabaña 2 tiene algunos rasgos peculiares. De ahí que el objetivo es establecer una estratigrafía comparada 1) coherente, entre los elementos que integran la necrópolis, dada su proximidad física y por tanto como resultado de un mismo grupo humano y 2) fiable, pues aporta datos sobre fórmulas funerarias o constructivas de una comunidad a lo largo del tiempo. Con

Ehorzketa-multzo hau Bernia mendiaren (828 m.) iparraldera dagoen mendi-lepo leun eta zabalean kokatua dago, Bizkaiko artzanlekurik mendebalekoena den Haitzkoan hain zuzen, Karrantza-ko kubetaren mendebaleko pareta osatzen duena.

Bere izaera bereziki ehorzketakoa denez, La Cabaña 2-ko trikuharriaren indusketak baditu zenbait berezitasun. Horregatik helburua honako ezaugarriak izango dituen estratigrafía parekatu bat erakitzea da: 1) hilerria osatzen duten elementuen artean koherentea izatea, duten hurbiltasun fisikoagatik eta giza-talde beraren emaitza direlako eta 2) fidagarria izatea, komunitate baten erai-

esto se intenta eliminar la dificultad que ofrece el establecimiento de una estratigrafía comparada a partir de yacimientos distantes entre sí que ya ha evidenciado repetidamente su inutilidad para establecer una secuencia cultural aunque pueda valer para establecer criterios metodológicos o interpretativos sobre materiales aparecidos.

La excavación: estructuras y ajuar

La excavación fue precedida por un sondeo ante el desmantelamiento que mostraba el dólmen. Con él se puso de manifiesto que una parte considerable de la estructura dolménica se encontraba alterada pero se podía reconstruir con gran fiabilidad:

El túmulo consta de un núcleo de tierra arcillosa en la que aparecen piedras de arenisca colocadas cuidadosamente sobre su cara plana. Este núcleo es la base del galgal y al mismo se superpone una capa superficial de piedras sólo conservada en el cuadrante SW. Está rodeado formando el límite del túmulo por un anillo de piedras, algunas clavadas verticalmente y otras inclinadas hacia el interior, lajas que sólo se conservan parcialmente en el cuadrante SW.

La cámara tiene un trazado rectangular en dirección E-W. Se conservan las bases de las piedras de arenisca que la componían aunque una de ellas está casi entera y falte alguna otra. Consta de una losa en cada lado menor y de dos laterales en los mayores, completándose con otras menores de apoyo. El fondo de la cámara se preparó colocando una laja de arenisca plana ocupando todo el espacio.

El ajuar lítico y cerámico aparece con mayor abundancia en el núcleo del túmulo. La cámara, como en los dólmenes de La Cabaña 4 y Cotobasero 1 de la misma estación pastoril, carece de ajuar específico y se reduce a productos poco significativos de la talla del sílex. La cerámica aparecida en el túmulo muestra una cierta variedad de grosores y tipos aunque es en su mayoría lisa. Los útiles de sílex responden a una gran diversidad: núcleos, lascas, esquirlas, láminas, raspadores, perforador, puntas de flecha incipientes y microlitos geométricos. Aparece asimismo un hacha pulimentada de pequeño tamaño y en el exterior del monumento una punta de flecha de alas y pedúnculo. Para una información complementaria sobre la estación pastoril V. J. GORROCHATEGUI y M. J. YARRITU (1984): CARTA ARQUEOLÓGICA DE VIZCAYA. 2ª Parte: Materiales de Superficie, 7-28 pp., Universidad de Deusto, Bilbao.

kuntz edo ehorzketa-formulei buruzko datuak eskaintzen bait ditu, denboran zehar. Bide honetatik elkarrengandik urrun dauden aztarnategietatik abiatuz egindako estratigrafía parekatu batek eskaintzen duen zailtasuna baztertu nahi da, behin eta berriz frogatu bait da estratigrafi mota honek sekuentzia natural bat eraikitzeke ez duela balio, azaldutako materialen gain erizpide metodologiko edo ulertzekoak eraikitzeke balio dezakeen arren.

Indusketa: egiturak eta ostilamendua

Indusketa-aurretik zundaketa bat egin zen trikuharririk zuen eraspen-egoera ikusirik. Honela agerian jarri zen egitura dolmenikoaren zati handi bat erasana zegoela, baina fidagarritasun osoz berreraiki zitekeela:

Tumulua buztinezko lur-erdigune batez osatua dago, eta bertan bere aurpegi txapalaren gainean arretaz ezarritako hareharriak azaltzen dira. Erdigune hau da harrimeta-aren oinarria eta berari gainezartzen zaio azaleko harrizko geruza bat HM koadrantean soilik kontserbatu dena. Bere inguruan tumuluaren muga osatuz harri-eraztun bat dago, batzuk bertikalki lur-rean sartuak eta besteak barnealderantz okertuak, HM koadrantean soilik eta partzialki gainera kontserbatzen diren harlauzak.

Ganbarak trazadura laukizuzena du E-M norabidean. Garai batean osatzen zuten hareharrien oinarriak kontserbatzen dira, haietako bat ia osorik eta besteren bat falta den arren. Alde txikienetako bakoitzean harlauza bat dauka, eta alde handietan bi albo-harlauza, euskarri-moduko beste txikiago batzukin osatuz. Ganbara-zorua, espazio osoa betetzen zuen hareharri lau'ko harlauza bat ezarri prestatu zen.

Ostilamendu litiko eta zeramikoa oparotasun handiagoz azaltzen da tumuluaren erdigunean. Ganbarak, artzanleku bereko La Cabaña 4 eta Cotobasero 1-eko trikuharrietan bezala, ez du atu berezirik eta suharri-laneketa-aren esangurarik gabeko eratorrietara mugatzen da. Tumulan agertutako zeramika, lodiera eta mota ezberdinetakoa da, gehienbat leuna izanik. Suharri-tresneria oso ezberdina izan daiteke: nukleoak, printzak, ezgardak, ijelkiak, marruskak, zulagailuak, gezi-punta eta mikrolito geometrikoak. Tamaina txikiko aizkora leundu bat ere azaldu da, eta monumentuaren kanpoaldean txorten eta hegaldun gezi-punta bat. Artzanlekuari buruzko informazio gehiago edukitzeko, ikus J. GORROCHATEGUI eta M. J. YARRITU (1984): CARTA ARQUEOLÓGICA DE VIZCAYA. 2ª parte: Materiales de Superficie, 7-28 pp., Universidad de Deusto, Bilbao.



Dolmen de LA CABAÑA 2. Vista general de la cámara desde la cabecera Oeste.

LA CABAÑA Trikuharria 2. Mendebaldeko burualdetik ehorzgelaren bista orokorra.

A.1.3.5.

Cueva de Arenaza I

(San Pedro de Galdames, Vizcaya)

XIII Campaña de excavaciones.

Dirigida por Juan María Apellániz.

Subvencionada por la Diputación Foral de Vizcaya.

Se trata de ampliar los datos estratigráficos y materiales para interpretar la coexistencia de evidencias de ocupación tardoromana y del Bronce Final apreciada ya en el lecho superficial y repetida en los subyacentes.

De modo más general se trata de aislar con mayor precisión el espectro cultural de la ocupación tardoromana respecto de su inmediata anterior, así como determinar con mayor seguridad el carácter y la cronología de ésta. Este objetivo encaja en el intento de establecer sin lugar a dudas y con suficientes materiales el desplazamiento de la población de cavernas durante la Edad de Hierro a otros tipos de asentamientos, según la hipótesis en uso.

La excavación

Se han excavado los Sectores VII y VIII, que suman 165 m² y se han levantado los lechos 3 y 4 en el primero y 4 en el segundo.

La sedimentología del yacimiento es complicada a causa de la acción simultánea de aportes a partir de la entrada, otros a partir del interior de la cueva, los efectos de flujo y rebalsamiento del aliviadero lateral y los de los sumideros centrales, así como los de la caída de bloques de la grieta trasera. De acuerdo con el informe sedimentológico (Dr. M. Hoyos, Instituto de Geología. C.S.I.C. Madrid) no se aprecian pruebas que demuestren la precedencia de los aportes del interior sobre los del exterior en la zona excavada.

Los materiales arqueológicos

Se han detectado las superficies de concentraciones de arcillas enrojecidas, cenizas y minúsculos restos de carbón vegetal en los dos Sectores, coincidiendo con el piso establecido por los lechos de excavación. No se observan, sin embargo, estructuras de hogar ni concentraciones de materiales, explicables por su presencia de forma exclusiva.

Los materiales arqueológicos de ambos sectores coinciden completamente en su espectro y distribución.

A.1.3.5.

Arenaza I Haitzuloa

(San Pedro de Galdames, Bizkaia)

XIII. Indusketa-ekinaldia

Zuzendaria: Juan Marfa Apellaniz

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaineko azalean eta azpikoetan errepikaturik azaltzen diren beranterromatar eta Azken-Brontze finkamenduen azternen izakidetasuna interpretatzeko datu material eta stratigrafikoen ugaltze ahalegin bat da ekinaldi hau.

Orokorki, beranterromatar finkamenduaren espektru kulturala bere aurrekoarengandik zehaztasun handiagoz isolatzean eta baita ere segurtasun handiagoz beronen kronologia eta izaera mugatzean datza. Burdin Aroko populazioaren haitzuloetatikako beste era bateko egoitzetarako desplazamendua dudarik gabe eta nahiko material ezartzeko ahalegin batean sartzen da, egungo hipotesiaren arabera.

Indusketa

VII. eta VIII. sektoreak industu dira, zeinek 165 m² batzen bait dituzte, eta 3. eta 4. azalak lehenengoan, eta 4.a bigarrenean altxatu dira.

Aztarnategiko sedimentologia konplexua da haitzulo sarreratikako eta bamealdetikako ekarkinen ekintza elkartuak, alboko irriskoaren jario eta osinen eta erdiko isurbidearen ondorioak, eta baita ere atzekaldeko erraileko blokeen errortzaak direla eta. Txosten sedimentologikoak dionez (M. Hoyos Dr. Instituto de Geología. C.S.I.C. Madrid) ez da ikusten kanpoko ekarkinekiko barrualdekoen aurrekotasuna azaltzen duten frogarik industutako alderdian.

Material arkeologikoak

Bi sektoretan detektatu dira buztin gorri, errautsez eta egur-ikatz hondakin txikiz osatutako konzentrazio azalak, indusketa-azalek ezarritako zoruarekin bat etorritik. Ez dira agertu ordea, beraien forma berezizko presentziak adieraz zitezkeen, ez sutegi estrukturarik eta material konzentrazioarik.

Bi sektoretako material arkeologikoak bat datoz beraien espektruan eta banaketan. Beranterromatarrak oso urriak dira (terra sigillata eta erromatar zeramika arrunta). Aurreko ekinaldietan Azken-Brontze Aroari atxikitutakoak



Cueva de ARENAZA. Sector VIII. Lecho 4.

ARENAZA haitzuloa. Sektorea III. Azal 4.

Los tardorromanos son escasos (terra sigillata y común romana). Los atribuidos en campañas anteriores a la Edad del Bronce Final son más abundantes. Algunos refuerzan la atribución sugerida, en especial un alfiler de bronce de cabeza esférica y una punta de lanza en bronce (no analizados) de sección circular en la hoja y enmangamiento tubular con orificio de sujeción. El primero se fecha entre 1.100 y 950 a. C. en cuevas de la región de Aude (Guilaine, 1972, p. 239) y la segunda en depósitos españoles en torno al 800 a. C. (Almagro, 1967, E. 19). Otros materiales en hueso reproducen los modelos de las puntas de flecha de bronce del Bronce Final. La decoración más sig-

ugariagoak dira. Batzuk, adierazitako atxikitzea indartzen dute, batez ere, buru eskerikodun brontzezko orratz batek eta ebakidura zirkularrezko orria eta lotura-zuloz osaturiko girten hodianzueko dituen brontzezko lantza-punta batek (analizatu gabe) Lehenengoa Aude herrialdeko haitzuloetan K.a. 1.100dik 950era datatzen da (Guilaine, 1972, 239 or.) eta bigarrena espainiar gordailuetan K.a. 800 urte inguruan (Almagro, 1967, E, 19). Beste zenbait hezurrezko materialek Azken-Brontzezko brontzezko gezi-punta ereduak erreproduzitzen dituzte. Zeramikaren dekorazio garrantzitsuena (intzizio iladena, nahiz bakarkakoa edo inpresio zirkularrekin konbinatua, zabalera eta

nificativa de la cerámica (hileras incisas, solas o combinadas con impresiones circulares, acanaladuras de diversa anchura y profundidad, ondulaciones incisas, etc.) aparece acompañando a los ajures del Bronce Final en el S.E. de Francia entre 850-700 a. C. En la técnica de la incisión parece poder detectarse, pese a la pequeñez de los fragmentos, una tendencia a fraccionar la incisión en segmentos, recordando vagamente a la técnicas que acompañan la aparición del Boquique en España.

Resultados

Parece confirmarse con buenos argumentos la atribución de la mayor parte de los materiales del Bronce Final y es segura la atribución al s. IV d. C. de los materiales romanos, pese a que se ha encontrado una moneda del emperador Antoninus (138-161 d. C.) asociada a estos conjuntos.

Por ahora parece poder mantenerse la hipótesis de que la ocupación tardorromana, muy débil, se ha encajado en la zona superficial de la del Bronce Final, aunque ésta no ha aparecido todavía limpia de intrusiones romanas.

Notas

Almagro, M. Inventaria arqueológica. España. Fase. 7. E11. E19. 1967.

Guilaine, J. L'age du Bronze en Languedoc occidental, Roussillon, Ariège. 1972.

A.1.3.6.

Cueva de Lumentxa

(Lekeitio, Vizcaya)

I Campaña de excavaciones.

Dirigida por José Luis Arribas.

Subvencionada por la Diputación Foral de Vizcaya.

El yacimiento de Lumentxa, localizado en el monte del mismo nombre, fue excavado por D. José Miguel de Barandiarán y D. Telesforo de Aranzadi entre 1926 y 1929, y, de nuevo, por el primero en solitario, en 1963 y 1964. Ambas fases de excavación posibilitaron:

- a) el conocimiento de la estratigrafía de la ocupación que abarca desde época tardorromana hasta, al menos, los comienzos del Paleolítico Superior.
- b) una amplia colección de evidencias arqueológicas y paleontológicas, depositadas en el Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico Vasco de Bilbao, que han

sakonera ezberdineko ildaskena, uhindura intzisoena e.a.) Frantziako Hego Ekialdeko atuekin batera azaltzen da K.a 850etik 700era. Intzizio teknikan badirudi hatzeman daitekeela, pusketak txikiak izan arren, intzisia segmentutan zatitzeko joera bat, nolabait ere, Espainian Bokike agertzean azaltzen diren teknikak gogoratuaz.

Badirudi material gehienak Azken-Brontzera atxikitzea argumentu onez baieztatzen dela eta material erro-matarrak K.O.IV. mendera atxikitzea segurua dela, nahiz talde hauekin batera Antoninus emperadorearen txanpon bat (K. o. 138-161) ere aurkitua izan.

Oraingo, badirudi manten daitekeela, zera dion hipotesia: beranterromatar finkamendua, oso ahula izan arren, Azken-Brontzeko azalera zonan artekatu dela, nahiz azken hau oraindik erromatar intrusioetatik garbi ez agertu.

Oharrak:

Almagro, M. Inventaria Arqueologica. España. 7. Alea E11 E19. 1967.

Guilaine, J. L'age du Bronze en Languedoc occidental, Roussillon, Ariège. 1972.

A.1.3.6.

Lumentxa Haitzuloa

(Lekeitio, Bizkaia)

I. Indusketa-ekinaldia

Zuzendaria: Jose Luis Arribas

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia

Lumentxako aztarnategia, izen berdineko mendian kokatua, Jose Miguel Barandiarán eta Telesforo Aranzadi Jaunek industua izan zen 1926 eta 1929. urteen artean, eta berriro ere lehenengoak, oraingoan bakarrik, 1963an eta 1964ean. Bi indusketa fase hoiak zera posible egin zuten:

- a) Beranterromatar garaitik, gutxienez, Goi Paleolitoaren hasera hartzen duen finkamenduaren estratigrafiaren ezagutza.
- b) Bilboko Euskal Arkeologi, Etnografi eta Historia Museoan gorderik dagoen zantzu arkeologiko eta paleon-



Cueva de LUMENTXA. Cierra de la boca SW.

LUMENTXA haitzuloa. H.M.ahoaren itxitura.

sido objeto de numerosas revisiones y reinterpretaciones.

La existencia de un importante testigo, que calculamos en un tercio de la superficie total de la boca orientada al SW., nos animó a reanudar la excavación del yacimiento, en un intento de alcanzar tres objetivos básicos.

- a) Revisar y completar, si fuera preciso, la secuencia estratigráfica y cultural establecida por los primeros excavadores.
- b) Determinar, en lo posible, áreas de ocupación y estructuras de hábitat en los niveles arqueológicos del relleno.

tologikoz osaturiko bilduma zabal bat, zein askotan izan bait da berrikusia eta berrinterpretatua.

Hego Mendebaldera begira dagoen ahoaren eta azaleraren, gure ustez, herena den lekuko garrantzitsu bat izateak bultzatu gintuen aztarnategiaren indusketa berrastera, ondorengo hiru helburu hauek lortzearren:

- a) Lehenengo indusleek ezarritako sekuentzia estratigrafiko eta kulturala, behar balitz, berrikustea eta osatzea.
- b) Ahal den neurrian, betelan-maila arkeologikoetan finkamendu areak eta habitat-egiturak zehaztea.
- c) Lumentxako finkamendua Oiz-Lea ibaiarroko espazio geografiko eta arkeologikoan integratzea.

c) Integrar la ocupación de Lumentxa en el espacio geográfico y arqueológico de la cuenca fluvial del Oiz-Lea.

Los trabajos de esta primera campaña han estado encaminados, en primer lugar, a limpiar el espacio interior de la boca y a delimitar con precisión las zonas intactas de las ya excavadas. Ambas tareas estuvieron obstaculizadas por las diversas ocupaciones y transformaciones que la cueva ha sufrido tras las investigaciones de los años veinte.

Posteriormente, pudimos comenzar el levantamiento en horizontal del relleno. Los datos obtenidos han sido escasos, al no haber sido alcanzado más que el sedimento revuelto de la superficie. En él aparecen, mezclados, restos cerámicos de la ocupación romana, con otros, cerámicos y paleontológicos, de época histórica. En consecuencia, poco podemos aportar a la ya difícil definición de este primer nivel, de atribución romana.

A.1.3.7.

Castro de Marueleza

(Nabarniz)

III Campaña de excavaciones.

Director: Luis G. Valdés.

Subvención: Diputación Foral de Vizcaya.

La III campaña de excavaciones en el Castro de Marueleza ha proporcionado datos de un valor importante para comenzar a clarificar el final del Ier. milenio AJC en Vizcaya.

Se ha mantenido el mismo sistema de trabajo aplicado en la zona del Corredor y en las zonas intramuros próximas a la situación hipotética de la puerta. Para continuar la excavación se ha procedido a la cuadrícula de una zona amplia tras su desbroce, previendo la posibilidad de contar con una excavación en extensión y larga duración en la próxima campaña.

En el Corredor en los Flájes nº 6 y 2 se ha encontrado el lienzo interno de la primera línea de defensa en una altura de 1 m., muy bien conservado. La zona exterior de la primera línea de defensa en el Fláje nº 11 dio como resultado la aparición de un lienzo bien conservado aunque con una serie de patologías correspondientes a la acción de las raíces de los árboles plantados en la zona. En el interior se descubrió una trama de muros ortogonales que

Lehen ekinaldi honetako lanak, alde batetik, haitzulo-ahoaren barne espazioa garbitzera eta bestetik, industutako zonak ukitugabekoengandik zehaztasunez mugatzera bideratuak egon dira. Bi lan hauek, hogeigarren hamarkadako ikerkuntzen ondoren haitzuloak jasan izan dituen aldakuntza eta finkamendu ezberdinek oztopatuak izan dira.

Ondoren, betelanaren altxatze horizontalean hasi ahal izan genuen. Lortu diren datuak urriak izan dira, azaleko jalkin nahastura besterik ez baita iritsi. Bertan, erromatar finkamenduko zeramika pusketak eta garai historikoko beste zeramika eta paleontologi aztarnak nahasturik azaltzen dira. Honela ba, datu gutxi eman ditzakegu erromatartzat hartzen den lehen maila honen definiziorako.

A.1.3.7.

Marueleza Kastroa

(Nabarniz)

III. Indusketa-ekinaldia

Zuzendaria: Luis G. Valdes

Diru-laguntza: Bizkaiko Foru Aldundia

Marueleza kastroaren III. indusketa-ekinaldia Bizkaiko K.a. I. milaurtekoaren bukaera argitzen hasteko datu garrantzitsuak eman ditu.

Barne bide inguruan eta hipotetikoki atearen ondoan dagoen murrubarru inguruan erabilitako lan-sistema berbera mantentzen da. Indusketa jarraitzeko beste zona handi bat lortzeko da, bertako zaborrak kendu ondoren, hurrengo ekinaldian zabalera handiago eta iraupen luzeagoa dituen indusketa baten posibilitatea somatuz.

Barne bidean 6. eta 2. Fláje-tan, metro 1eko alturara, lehen babes-lerroko barne paramentua aurkitu da, oso ondo kontserbatua. Lehen babes-lerroko kanpokaldeko 11. Fláje-ak ondo kontserbatuak paramentu bat eman zuen, nahiz bertan aldatutako zenbait zuhaitzen erroen eraginez nolabaiteko hondamenak izan. Barruan, lehen material erabilkorren aurkikuntzarekin batera murrutik ortogonal bilbe bat azaldu zen, zeinek babes-egitura ez militarrean erantzun bait ditzake. 14. Fláje-ak, miaketa-zulo estratigrafikoen bidez landutako zona txiki batean, bi zera-



Castro de MARUELEZA.

MARUELEZAKO kastroa.

pueden responder a estructuras no militares defensivas con los primeros hallazgos de materiales muebles. El Fláje nº 14 en una pequeña zona trabajada en cata estratigráfica dió como resultado la aparición de dos tipos cerámicos. El de mayor importancia es el de tratamiento a torno rápido, de características similares a las de la cerámica celtibérica. El de realización a mano presenta características de la cerámica del Hierro I en zonas próximas situadas a oriente de este yacimiento, en Aquitania y el Valle del Ebro.

Materiales metálicos en escasa cantidad por el momento han sido hallados en los Flájes 11 y 14. En bronce

mika mota eman zituen. Garrantzitsuena tornu bizkorra-
ren tratamendua duena da, zeramika zeltiberiarraren be-
reizgarri berdintsuak izanik. Eskuz egindakoak berriz, az-
tarnategi honen ekialdera kokaturik dauden alderdietako
I.Burdin Aroko zeramikaren bereizgarriak azaltzen ditu,
